



Parlamento de Navarra
Nafarroako Parlamentua

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 18an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailetza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko jarduneko buruak txosten bat egin du Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren 2021. urterako ordainsariei buruz.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 37. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Lehendakariaren Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Ezartzea, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, Legebiltzarreko Mahaiak 2003ko abenduaren 30eko erabakiaren bitartez onetsitako irizpideen aplikazioa, Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren ordainsariak zehazte aldera.

2. Onestea, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, ezen lehendakariaren urteko ordainsari gordina 74.040,82 eurokoa izanen dela.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

4. Erabaki hau jakinaraztea Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzuko buruari eta Kontu-hartzailetza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruari.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 18an

LEHENDAKARIA

Unai Hualde Iglesias

Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzuko burua eta Kontu-hartzailetza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko burua